



OLALDE

Herri-Kirolen Parke-Museoa



Mungiako Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz, Herri-kirolen parke- museoaren sortu du Olalden. Bisita gidatuaren bitartez bisitariek Euskal Herriko Herri-kirolen tradizioa ezagutzeko aukera izango dute: jatorria, modalitate bakoitzaren garapena, federazio ezberdinak...

KIROLA ETA LANA - Jatorria



Herri-kirolak jatorrian baserriko lanei lotutako kirolak dira. Herri-kirolen oinarrietan Baserriko bizimodua eta beharrak daude..

Gure arbasoek era askotako lanak burutu behar izan zituzten beraien familiak aurrera ateratzeko, inguru gogor batean. Baserriko ohiko lanok txapelketa bihurtu dira eta balio kultural, etnografiko eta historiko izugarria dute, gure arbasoen bizimoduaren adierazpide baitira.

Herri-kiroletan indar fisiko eta erresistentzia handia behar dira. Kirol hauek atletek duten indarraren erakusgarri dira; izan ere, askotan euren ahalmenaren muga-mugara heltzen baitira kirolariak.

Herri-kirolak gaztelaniaz adierazteko "deportes del pueblo" edo "deportes populares" esan liteke; hau da, landa-bizimoduari lotutako kirolak dira.

APUSTUA




Euskal herri-kiroletan lehia da nagusi, eta horren erakusgarria da "apustua"; hau da, plaza, jokoak, dema eta desafioak oinarritzko elementuak dira gure herri-kiroletan.

Kirol bereziak dira, gure inguru geografikoan sortuak eta gure errealitate kultural, sozial eta ekonomikoari lotuak.



OLALDE

Herri-Kirolen
Parke-Museoa



LANEAN OINARRITUTAKO MODALITATEAK



HARRI-JASOTZAILEAK

Arautegiak dioenez: pertsona batek (bakarka edo beste batekin lehiatzen eta txandaka) inolako tresneria edo makina laguntzailerik gabe, ahal duen adina aldiz harria bizkarreratu behar du, aldez aurretik tinkaturiko pisu eta egiturak errespetatuz.



AIZKOLARIAK

Kirol hau ahalik eta denborarik laburren neurri jakineko enborrak aizkoraz ebakitzean datza. Enborrak normalean era horizontalean jarrita daude.



LASTO ALTXATZEA

Joko honetan lasto fardo bat ahalik eta gehienetan altxatu behar da denbora tarte jakin batean altuera jakin batera. Trebezia, ausardia eta teknika handia behar dira ondo egiteko.

ERLIJIOAN ETA JAI EGUNETAN OINARRITUTAKO MODALITATEAK



Frontoia eta Euskal Pilota.

Kirol honen barruan modalitate bat baino gehiago dago: esku-pilota, pala eta zesta. Frontoiak ere era desberdinetakoak dira: luzea, laburra, ezkerreko hormadunak, ezkerreko horma bakoak,... Pilota munduko leku askotan jokatzen da eta, beraz, oso ezaguna da.

BISITA GIDATUAK ETA DIDAKTIKOAK

Bisitak gida batek lagunduta egingo dira.

ORDUTEGIA

Erreserba egin behar da aurretik

Astelehenetik igandera

- 10:00-14:00
- 16:00-20:00

PRECIO

• 7€/ pertsona.
Gutxienez 20 laguneko taldea.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

Tel: 946740061
olentzero@izenaduba.com